

tre, Albert Camus) edo zinema zuzendariek (Inmar Bergman, hain zuzen ere) Leteren lanean izan zuten eragina. Izugarri maite zuen Frantziako kultura, batez ere Georges Brassens eta Jacques Brel abeslariak. Berak Brassens nahiago zuen: "Nik Brel asko estimatzen dut, eta Brassens baino gehiago hunkitu nau, baina honek, beharbada, badu txispa, letxe txar bat, grazia bat Brelek ez daukana". Dezente irakurri zuen: Gide, Tolstoi, Stendhal, Mauriak, Marina Tsvetana eta Ama Akhmatova Atxagak esan zuen bezala: "Liburuek kontsolatu egiten gaituzte, erratifikatuak sentitzen gara", 181 orrialdean. Bere ustez "Irakurketak asko aportatzen dio idazleari", 72. orrialdean. Bestalde, asko maite zuen Atxaga. Horrela 88. orrialdean irakur daiteke: "Obaba irakurri eta gero poetarekiko maitasun kolpe bat etorri zitzaidan, eta era berean lurralde hura maite dudala sentitu nuen". Liburuko atal horrek maitasun eta erreko- nozimendu keinu bat egiten dio Bernardo Atxagari: "Nik estima handia diot Atxagari eta niri gauza asko aportatu dizkit". Oso interesgarria da nazionalismoaren eta aberriaren artean egiten duen bereizketa ere. Bere aburuz, nazionalismoa kontzeptu ezkorra da, eta aberria positiboa da. Erlijioari dagokionez, Jainkoarekiko harremanen gainean hau idatzi zuen: hiru garai igaro zituen. Hamazortzi urte arte katolikoa izan zen, gerorago agnostiko bihurtu zen. 1989an, koman egon zenean, Lourdes Iriondok Jose Maria Lekuona apaizari deitu zion "extremauztoa" emateko. Horren ondoren berehala sendatu egin zen, eta sendagileentzat eta berarentzat mirari bat izan zen. Handik aurrera Jainkoarengan sinetsi zuen bukaera arte. Amaitzeko esan nahi nuke bere abestiak eta bere olerkiak bere bizitza baino interesgarriagoak eta hunkigarriagoak izan direla niretzat behintzat. (GASTEIZ)

Zamaontzia

Iñigo Aranbarri

- Askok gustatu zait liburu hau. Irakurtzen ari nintzela pentsa-

tzen nuen zergatik ote zegoen hain haserre Nerea bere aitarekin. Bukieran ulertu dut. Ongi harilkatu du istorioa. (DONOSTIA)

2012

19 kamera

Jon Arretxe

- Bilboko "auzo txinatarrean" giro-tutako eleberri beltza, Toure etorkin afrikarra delarik protagonista. Auzo horri buruz Arretxek duen ezagutza oso sakona da, benetako tabernen izenak ere agertzen baitira liburuan. Liburua oso azkar eta gustura irakurtzen da eta argumentua oso ondo harilkatuta dago, nahiz eta pasarte batzuk, nire ustez, soberan edo txarto burututa dauden (Enare pertsonaia edo Txominekiko arrantza saioa). Hala ere, emaitza orokorra guztiz positiboa da eta espero dut Toure pertsonaia Arretxeren liburu batean berriro agertzea. Oso gomendagarria. (BILBO)

- Jon Arretxeren liburu berri honetan gaur egungo Bilboko San Frantzisko auzoa aurkituko dugu, droga, sexu merke eta miseria gorritz gainezka. "Afrika Txikia" deiturikoa da protagonista zentzu batean, oso ondo marraztuta dagoen Toure gizon afrikarraren pertsonaia nagusia haragiztatua. Umore berezi eta finarekin erakusten du Arretxek auzo madarikatu horren barruko errealitate desatsegina. Aurreiritzietatik haratago joanez, gizaki askok eguneroko bizimodu nola bilatzen duen islatzen du.

Modu erakargarri batean aurkezten digu, nolabait, pertsonen arteko maitasunak eta elkartasunak ia muga guztiak apur ditzaketela. Hori da, nire ustez, liburu honek duen irakaspenerik zuzena.

Alta, ditugun datu guztien arabera, botere politikoak esperimentu berezia egiten du auzo honetan, nahi duenean bertan bizi direnekin kontrol sozialerako frogak asmatuz, eta beste une batzuetan, errealitate gordina ikusiko ez balu bezala, beste leku batera begiratu. Pertsonaia baten hitzetan:

"Gure agintariak oso eroso daude Bilboko zaborra hemen pilaturik dagoen bitartean. Noizean behin apur bat garbituko dute". Kalitate handiko beste eleberri beltz baten aurrean gaude. (ABANTO-ZIERBENA)

Beste norbaiten zapatak

Garazi Kamio

- Idazlearen esanetan liburu honetako ipuin bakoitzean dago deserosoa den zer bait, baina erraz irakurtzen da liburua, inolako deserosotasunik gabe. Edonori gomendatzeko modukoa da, eguneroko bizitzako erretiratuz betetako liburua. (AZPEITIA)

Ni, Vera

Itxaso Martin

- Oinaze gordinetatik ihes egiteko psikologoarenera joango da Martina. Bidean bururatsen zaio atsegingo litzaiokela jakitea, benetan, bere buruarekin zer gertatzen den. Ataka horretatik lehenbailehen irten nahi du, badirudielako eromenaren bide suntsitzaileak harrapa dezakeela. Era berean, erne ibiltzen ez bada, psikiatriko batera joan daitekeela oldozten du. Beraz, arreta handiz biziko da, une oro.

Martinak ez daki buruan dabilkion joera kezagarri hori nondik datorkion, ezta bera "aukeratua" zergatik izan den ere. Esan diotenaren arabera, ordea, genetikan ere azalpen bat baino gehiago aurki ditza- ke. Hor agertuko da liburuko beste protagonista, birramama (Vera izenekoa), psikiatrikoan bahituta denbora luze egon zena.

Pairatzen duen barruko bihozmin hori oso ondo ezagutarazi digu idazleak, eta bere- rekin batera ibiliko gara emozio batetik bestera, ihes egin nahian, gero eta errealistagoa iruditzen zaigun heinean.

Verak bezala, gatibu, guk ere sintoma guztiak ditugula senti dezakegu. Teknika narra- tiboa maisuki erabilita, lehenengo zatian batez ere, jakin- min morbosoa piztuko digu eleberri honek, kontua zertan

datzan jakiteko, protagonis- ta zein neurritaraino erotuko den, edota bidean irtenbiderik aurkituko ote duen. (ABANTO-ZIERBENA)

Paradisua

Arrate Egaña

- Bost istorio ditu liburu honek. Bakoitza leku ezberdin ba- tean kokatuta dago: *Neguko udareak* Lizarran, *Mont Saint-Michel* Normandian, Bretainian eta Bilbon, *Grindavik* Hondarri- biko baserri batean, *Paradisua* Jaizkibelgo beste aldean, Le- zon zehatz-mehatz, eta *Abenduak 21* Bilbon. Azken hau da gehien atsegin izan dudana; ez konplexuena delako, landuena baizik. Lau pertsonaiek, Naroak, Marisak, Anderrek, eta Carlo- sek hain zuzen ere, Maddiren desagertzearen inguruan haus- nartzen dute, bakoitzak bere ikuspuntutik. Gainera, 123. orrialdean emakumeen gaineko deskribapen egoki-egokia irakur daiteke: "Badaude emakume pairakorrak, kexan gotortuak, minak erredimituak -hala uste dute, bederen- sakrifiziotik al- dentzen ez direnak, ez dakite- lako harago zer dagoen, gure ama bezala. Beste emakume batzuek ezbeharra saihestu egi- ten dute".

Mont Saint-Michel ere, lau- garrena, aipatzekoa da. Pro- tagonistaren ama filosofia irak- kaslea denez hainbat filosofo aipatzen ditu: Bergson eta bere "une-erroak", Deleuze... Liburuari izenburua ematen dion ipuina, *Paradisua*, Sisifori buruzko aiparekin hasten da: "Sisifo bezala harri eroria berri- ro altxatu nahian". Nire ustez, bigarrena, *Grindavik*, da poeti- koena. Adibidez, 25. orrialdean aurki daiteke: "Hango zurbil- tasunean galtzeak sentsazio ederrak zekarzkidan, hodei ar- tean hegan egitearen pareko, isolamendu nare eta baketsua". Lehenengoan, *Neguko udareak* izenekoa, Arrate Egañak uda eta bizitzaren arteko kontrajar- tzea egin du. Nahiz eta ipuin guztietan pertsonaiek ez duten paradisua aurkitzen, irakurlea paradisura hurbilduko da liburu hau irakurriz. (GASTEIZ)